

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

7840 *9/2021 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 11koa, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzen duena, plataforma digitalen esparruan banaketan aritzen diren pertsonen lan-eskubideak bermatzeko.*

I

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek gizarte-harremanak eta kontsumo-ohiturak mundu osoan eraldatzeko birtualtasuna izan dute, eta, horrekin batera, negozio-modu berrien aukerak sortu dituzte, besteak beste, datuak lortu eta kudeatzearen eta etapa berri horretara egokitutako zerbitzuen eskaintzaren ingurukoak.

Era berean, kalkulu matematikoko metodoak edo algoritmoak aplikatu zaizkie lan-harremanei, zerbitzuak emateko modua goitik behera aldatuz eta baliabideak eta emaitzak optimizatuz. Metodo horiek aukera handia eskaintzen dute pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko. Horren erakusgarri dira osasun-krisialdian zehar behartu edo azkartu den digitalizazioaren emaitzak, urrutiko zerbitzu eta osasun-arreta pertsonalizatuak gaitu baitira, lineako zerbitzuen bitartez negozioei eustea ahalbidetu baita, edo urrutiko lan-prestazioen jarraitutasuna bermatu baita.

Bitarteko teknologiko horien aplikazioak elementu berritzaileak sartu ditu lan-harremanetan, eta elementu horien abantailak agerikoak dira. Langileen lan-baldintzen gaineko abantailak eta ondorio positiboak guztiz bateragarriak dira lan-zuzenbidearen helburuarekin, interesak berriro orekatzeko, kontratuzko alderdirik ahulena babesteko edo giza baliabideak kudeatzeko eta enpresen produktibitatea hobetzeko eginkizunari dagokionez.

Bateragarritasun-formula horrexek bermatzen du iraultza teknologikoak modu ekitatiboan ekarriko dituela ondorio positiboak, eta eragina izango duela ezarri den gizartearen aurrerabidean. Eskubideak bermatzen dituen lan-merkatua gizarte moderno baten bermea da, gizarte-kohesioan oinarritua, demokratikoki aurrera egiten duena; pertsonak ardatz dituen merkatua, eragiten duena ekoizpen-sarea ez hain aldakorra eta aldaketan aurrean erresilienteagoa izatea.

Erronka horri aurre egiteko zailtasun handiak –batez ere zailtasun teknikoak– izan badira ere, elkarriketa sozialari esker gure herrialdea aitzindari izan da arlo horretan, eta diagnostiko baten bidez eta gizarte-solaskide garrantzitsuenek partekatutako irtenbide baten bidez egin du aurrera, haien ekarpenak erabakigarriak izan baitira. Errege lege-dekretu hau, beraz, Gobernuaren eta CC. OO., UGT, CEOE eta CEPYME artean 2021eko martxoaren 10ean hartutako Akordioaren emaitza da, 2020ko urriaren 28an horretarako eratutako Elkarriketa Mahaiak garatutako lanaren ondoren.

II

Errege lege-dekretu honek artikulua bat eta bi azken xedapen ditu. Horien helburua da lan-ingurune digitalizatuan langileen ordezkariak duten informazio-eskubidea zehaztea, bai eta banaketa-plataforma digitalen esparruan besteren konturako lan-harremana arautzea ere.

Artikulu bakarrak aldatu egiten du urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina, bi alderditan. Lehenik eta behin, 64. artikulua aldatzen du, langileen legezko ordezkarien informazio- eta kontsulta-eskubideei buruzkoa, eta d) paragrafo berri bat gehitzen dio 4. apartatuari. Horren arabera, enpresa-batzordeak eskubidea du enpresak informazioa eman diezaion lan-baldintzetan, enplegu-sarbidean eta -mantentzean, eta baita profilak

lantzean ere, eragina izan dezaketen algoritmoen edo adimen artifizialeko sistemen oinarrian dauden parametroei, araei eta jarraibideei buruz.

Bigarrenik, xedapen gehigarri berri bat sartzen du, zeinahi produktu edo salgai mota banatzeko jardueren lankortasun-presuntzioari buruzkoa, enpresak antolaketa-, zuzendaritza- eta kontrol-ahalmenak, plataforma digital bat erabilita, zerbitzuaren edo lan-baldintzen kudeaketa algoritmikoaren bidez gauzatzen dituen kasuetarako. Presuntzio horrek ez dio eragiten Langileen Estatutuaren 1.3 artikuluan aurreikusitakoari.

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak egindako funtsezko lana dago banaketa-plataforma digitaletako zerbitzu-prestazioen lankortasunaren alde nahiz kontra eman diren epai askoren jatorrian. Epai horiek irailaren 25eko 805/2020 AGErekin amaitu dira.

Xedapen gehigarri berriak Auzitegi Gorenak doktrina bateratzeko emandako lehen epai horretan ezarritako irizpide eta parametroak barne hartzen ditu, eta, horretarako, errealitate-printzipioaren nagusitasunaz baliatzen da, aurretik izan diren epaiek adierazitako zentzuan, hala nola, 1986ko otsailaren 26ko 263/1986 AGE, edo 2015eko urtarrilaren 20ko AGE (587/2014 errekurtsua). Xedapenean adierazten da, halaber, egungo testuinguruko mendekotasun- eta besterentasun-betekizunak egokitu egin behar direla. Epai horretan, honako hau jasotzen da:

«Sortu zenetik gaur egun arte, laneko eskubideak mendekotasun/subordinazio betekizunean bilakaera bat izan duela ikusi dugu. Auzitegi Gorenaren 1979ko maiatzaren 11ko epaiak dagoeneko ñabartu zuen betekizun hori, eta adierazi zuen «mendekotasunak ez dakarrela berarekin erabateko subordinazioa, enpresako antolaketa eta diziplina gidatzen duen zirkuluan sartze hutsa baizik». Industria-ondorengo gizartean, mendekotasunaren ezaugarria malgutu egin da. Berrikuntza teknologikoek bidea zabaldu diote zerbitzu-prestazioak kontrolatzeko sistema digitalizatuak ezartzeari. Ekoizteko errealitate berri bat egoteak behartzen du arauak aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotzera mendekotasun eta besterentasunaren ezaugarriak (Kode Zibilaren 3.1 artikulua)» (7. OJ).

Hortik abiatuta, demandatutako banaketa-plataformaren eta errekurtsuaren eraginpeko langilearen arteko lan-harremana aztertu zuen Auzitegi Gorenak, eta aurretik hainbatetan adierazitako gauza bera errepikatu (guztiak ordezkaturik, 1996ko apirilaren 22ko epaia (2613/1995 errekurtsua) eta 2005eko maiatzaren 3ko epaia (2606/2004 errekurtsua): enpresak zuzendaritzarako, antolaketarako eta jarduera-kontrolerako ahalmenak, eta horren ildoan, mendekotasunaren eta besterentasunaren ezaugarriak, klasikoak ez diren bestelako moduetan gauzatu ditzakeela, enplegatzailerak eragiketaren arriskuak hartzen dituen eta emaitzen onuraduna denean, prestazioa koordinatzeko, antolatze edo kontrolatzeko lana eginez edo zehatzeko ahalaz baliatuz. Nahiz eta zeharka edo inplizituki izan, gauzatu ditzake ahalmenak lan-baldintzen edo eskainitako zerbitzuen kudeaketa algoritmikoa eginez.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren bitartez, eta elkarrizketa sozialeko mahaian hartutako akordioaren bidez, legera lekualdatzen da gai honi buruzko jurisprudentzia, horrela, Langileen Estatutuak errealitate berri horiek argi eta garbi isla ditzan.

Horrela, Langileen Estatutuan jasotzen da enpresa-ahalmenak, bertako 20. artikuluan adierazten direnak, hainbat eratarik gauza daitezkeela; era horietako bat da zerbitzuaren edo lan-baldintzen kudeaketa algoritmikoa erabiltzea, plataforma digital baten bidez. Beraz, plataforma digitalaren kudeaketa algoritmikoa bihurtzen da jardueraren aktibo giltzarria eta funtsezkoa. Beraz, enpresa-ahalmenak zeharka edo inplizituki gauzatzeko moduaren ondorioz, langileak lana gauzatzeko duen nolabaiteko malgutasuna edo askatasuna itxurazkoa bakarrik izan daiteke, izan ere, benetako errealitatea baita ustezko malgutasun edo askatasun horrek ondorioak edo eraginak dituela enpleguari eusteko, lanaren bolumenean edo gainerako lan-baldintzetan.

Sendotu egiten da, halaber, Langileen Estatutuaren 8.1 artikuluari aipamena eginez, hauek baloratzearen garrantzia: laneko loturaren benetako izaera, prestazioen edukia, eta kontratu-akordioaren bitartez onartzen diren betebeharren konfigurazio asimetrikoa eta

benetakoa. Balorazio hori beharrezko elementua da lan-eskubidearen erabilgarritasuna eta babesgarritasuna bermatzeko.

Algoritmoek gure arreta eta analisia merezi dute, aldaketak eragiten ari baitira enpresa-zerbitzuen eta enpresa-jarduereen kudeaketan, lan-baldintzen alderdi guztietan, eta, batez ere, langileek enpresan parte hartzen duteneko eskema tradizionalarekin bat ez datozen moduan ari direlako gertatzen aldaketa horiek. Zentzu horretan, elkarriketa sozialeko mahaiak partekatzen duen beste gogoetetako bat da ezin dugula ezikusiarrena egin teknologia berriek lan-eremuan duten eraginaren aurrean, eta lan-legeriak eragin horiek kontuan hartu behar dituela, hala langileen eskubide indibidual eta kolektiboetan, nola enpresen arteko lehiakortasunean.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarri berria, zeina, adierazi den bezala, loturaren benetako izaeraren balorazioan oinarritua baitago, eraginkorra izango da neurri handi batean, baldin eta plataformen bidez garatzen den jarduerari buruzko informazioa egiaztagarria bada. Izan ere, informazio horrek aukera eman behar du lan-harreman jakin bateko zerbitzu-prestaziorako baldintzak xedapen horretan azaldutako egoerarekin bat datozen ondorioztatzeko, kontuan hartuta, jakina, enpresen gaineko araudiaren arabera industria-sekretua eta merkataritza-sekretua, ez baitira zalantzan jarri behar. Informazioa enpresa-erakundearen zerbitzura dauden algoritmoen edo bestelako eragiketa matematikoen lan-ondorioak jakiteko izango da.

Amaitzeko, azken xedapenetako lehena sartzen da, lehiakortasunari buruzkoa, eta azken xedapenetako bigarrena, indarrean sartzeari buruzkoa; hiru hilabeteko epea ezartzen da indarrean jartzeko, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen denetik hasita, epe hori beharrezkotzat jotzen baita arauaren edukiaz jabetzeko eta aplikatu ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

III

Beraz, aparteko eta presazko beharrezko gaitutako aurrekontuekin bat, Konstituzio Auzitegiaren doktrina hartu behar da kontuan; ekainaren 7ko 61/2018 epaian (4. oinarri juridikoa) dator laburtuta, eta hauek betetzea eskatzen du: batetik, «Gobernuak tresna hori onartzeko aztertu dituen zioak era esplizituan eta arrazoituan azaltzea», eta, bestetik, «ezinbesteko lotura egon behar da zehazten den presako egoeraren eta egoera horri erantzuna emateko hartzen den neurriaren artean».

Ezohiko eta presako beharrezko dagoela egiaztatuz, zioen adierazpenean azaldu den auzia nabarmendu behar dugu, eta baita 2020ko irailaren 25eko 805/2020 AGEN jasotako doktrina ere, zeinak *lege ferendae* zartzen baitu legegintzako konponbideren bat hartu behar dela, langileentzako eta enpresentzako normalizaziorako eta segurtasun juridikorako beharrezkoa den esparrua ipiniko duena.

Batetik, presazko beharrezko dago egoera ekonomiko berri bat era orekatuan egituratzeko –antolatze moduan–, langileak babesteko, izan ere, zerbitzuak molde tradizionaletik aldentzen den eran ematen dituzten arren, prestazioari dagokion kontrolaren mende baitaude, batez ere prozesuei eta emaitzei dagokienez.

Ildo horretan, proposamena eta haren presa berezko babes-printzipioaren arabera ulertu behar dira, eta ezin dira jardun administratibo edo judizialen mende utzi, Langileen Estatutuan jasotako eskubideen erabilgarritasuna bermatzeko eginkizuna esleitzen baitaie.

Babes-maila hori lortzeko funtsezkoa da langilea kontzeptu material gisa eta enpresa kontzeptu funtzional gisa hartzea, modu horretan, lan-zuzenbideak egiaz bere gain hartzen dituen gutxieneko eskubideen multzoaren erabilgarritasuna bermatzea oztopatzen duten elementu instrumentalak gaindituz. Bestela, gerta daiteke banaketa-plataforma digitalen ezohiko testuinguruan gero eta gehiago ari diren langileak araudi honen aplikazio-eremutik kanpo eta kalteberatasun handiko egoerara kondenatuta gelditzea.

Erregulazio hori bereziki beharrezkoa da langileek eskuratzen dituzten diru-sarrerak, Gizarte Segurantzarako kotizazioak, etxeetan erabilgarri dagoen errenta, eta industria-sarea berreskuratu ahal izateko sendotasunerako eta gaitasunerako lagungarri izango

diren beste eragin gehigarri batzuk kontuan hartuz gero, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean Europar Batasunarekin hitzartutako erronken aurrean.

Horregatik, presazkoa da ziurtasunak, segurtasuna eta aurreikusteko aukera emango dituen baliabide bat izatea, teknika berri hori erabiliz. Teknika horrek oso digitalizatuta dagoen ekoizpen-errealitate baten ezaugarriak islatuko ditu Langileen Estatutuaren testuan, baina ez ditu aldatuko Langileen Estatutuaren 1.1 artikuluan ezarritakoaren araberrako hainbat zerbitzuren lan-izaera zehazten duten ezaugarrien edukia eta irismena, ez izaera horren ondorioak ere. Presakoa da, baita ere, tratu-berdintasuna bermatzea enpresa «tradizionalen» eta datu algoritmikoen kudeaketan oinarritutako kontrol digitaleko baliabideak erabiltzen dituztenen artean, batzuen eta besteen arteko lehiakortasun gardena eta leiala oinarri hartuta.

Aurreko guztiak agerian jartzen du presazkoa dela bidezko lan-baldintzak bermatzea banaketa-plataforma digitalen ekonomian, eremu horretan zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonen lankortasun-presuntzioaren bitartez; horrela, enpresen arteko tratu-berdintasuna bermatzen da, lan egiteko modu estandarra izan ala ez izan. Azkenik, gauzatzen den legegintzako aldaketa benetakoa izatea nahi da, aldaketa hori betetzea eta aplikatzea benetakoak izan daitezela lortzeko mekanismoa sartuz.

Zentzu horretan, neurria onartzeak eta argitaratzeak segurtasun juridikoa emango die eragileei, eta xede hori lortu ahal izateko gutxienezko denbora bat behar denez, arrazoizko epea emango zaie lege-esparru berrian beharrezkoak diren egokitzapenak egin ditzaten

IV

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan erregulazio onaren printzipioak ezartzen dira: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Eta errege lege-dekretu honek printzipio horiek betetzen ditu.

Premia- eta eraginkortasun-printzipioekin bat etorriz, interes orokorreko arrazoi batek justifikatzen du ekimen arauemailea, behin lortu nahi diren helburuak identifikatuta; gainera, errege lege-dekretua jotzen da tresna egokientzat, helburu horiek lortuko direla bermatzeko. Bestalde, errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak egokiak eta neurritzekoak dira eurak onartu beharra ekarri duten beharrianetarako. Egiaztatu da ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko litzuzkeenik edo jasotzaileei betebeharrak gutxiago ezarriko liekeenik. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, ekimen arauemaile hau gauzatzean koherentzia gorde da gainerako ordenamendu juridikoarekin –izan Espainiakoa, izan Europar Batasuneko– segurtasuneko araugintza-esparru bat sortzeko, erraztasunak emango dituen araua ezagutzeko eta, ondorioz, eraginpeko pertsonen eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko.

Arau honekin, halaber, gardentasun-printzipioa betetzen da, hura eragin duen egoera eta haren helburuak argi eta garbi zehazten baitira (testuaren azalpen-zatian eta arau-eraginaren azterketari buruzko memoriaren dagokion atalean deskribatzen dira), eta ez dira egin Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26. artikuluan parte-hartze publikorako ezartzen diren izapideak, artikulua horren 11. apartatuak errege lege-dekretuentzat arautzen duen salbuespenaren babesean.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, arauak ez du administrazio-karga gehigarririk ezartzen.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 149.1.7 artikuluan xedatzen duenaren babesean ematen da, artikulua horrek Estatuari esleitzen baitio lan-legeriaren gaitako eskumen eskusiboa.

Beharrezkoa denez Langileen Estatutuari buruzko aldaketak berehala sartzeko, arau hau onartu behar da lege-dekretuaren tresna erabilita; izan ere, erantzuna behar duen egoerari ezin zaio heldu legegintzako prozedura arruntaren bidez edo presazko izapidetzearen bidez. Ildo horretan, kontuan hartu behar da Konstituzio Auzitegiaren doktrina, zeinaren arabera lege-dekretua konstituzioaren arabera tresna zilegia baita, baldin eta presazko legeria justifikatzen duen helburua egoera jakin bati aurre egitea bada, gobernuaren helburuen barruan, eta, aurreikusteko zailak diren arrazoiengatik, berehalako

araugintza-ekintza bat eskatzen badu, legeak parlamentuan izapidetzeko behar den epe laburragoan, bide arruntetik edo presazko prozeduratik baino; are gehiago, prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean (otsailaren 4ko 6/1983 epaia, 5. oinarri juridikoa; urtarrilaren 17ko 11/2002 epaia, 4. oinarri juridikoa; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 3. oinarri juridikoa; eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 3. oinarri juridikoa; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria).

Horren arabera, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimena baliatuta, Gobernuko hirugarren presidenteorde eta Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministro denaren proposamenez, eta Ministro Kontseiluak 2021eko maiatzaren 11ko bileran eztabaidatu ondoren,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzea.*

Aldatu egiten da Langileen Estatutuko Legearen testu bategina (2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa). Hona nola geratzen den idatzita:

Bat. Beste letra bat, d), gehitzen zaio 64.4 artikuluari. Hona nola geratzen den idatzita:

«d) Enpresak adimen artifizialeko algoritmoen edo sistemen oinarri diren parametroen, arauen eta jarraibideen berri ematea. Algoritmo edo sistema horiek eragina dute lan-baldintzetan, enplegurako sarbidean eta enpleguari eustean (profilak egitea barne) ondorioak izan ditzaketen erabakietan.»

Bi. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita hirugarrena, eta honela geratzen da idatzita:

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Lankortasun-presuntzioa banaketa-plataforma digitalen eremuan.*

8.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, lege honen esparruan sartuta daudela jotzen da kontsumorako edozein produktu edo salgai banatzeko zerbitzu ordainduak ematen dituzten pertsonen jarduerak, kasu honetan: enplegatzailleek enpresa-antolaketakoa, zuzendaritzakoa eta kontrolakoa ahalmenak zuzenean, zeharka edo inplizituki gauzatu ahal izateko zerbitzuaren edo lan-baldintzen kudeaketa algoritmikoa erabiltzen dutenean, plataforma digital baten bidez.

Presuntzio horrek ez du eraginik izango 1.3 artikuluan ezarritako osagarrian.»

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 149.1.7 artikuluan xedatzen duenaren babesean ematen da, artikulu horrek Estatuari esleitzen baitio lan-legeriaren gaineko eskumen eskusiboa.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hiru hilabetera jarriko da indarrean.

Madrilen, 2021eko maiatzaren 11n.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN